

INGURUMEN-KOMUNIKAZIOKO ESKOLA: PLANETAK AURREAN DITUEN ERRONKA HANDIAK NOLA KONTATU. KLIMA-KRISIA

MIRAMAR JAUREGIA, DONOSTIA, 2019KO EKAINAREN 24 ETA 25

Komunikazioa eta ingurumena elkarren mendeko bi ardatz dira, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren DNAn daude. Haietan oinarritzen da bi ardatz horiek uztartuko dituen foro bat sortzeko asmoa, gogoetarako espazio bat sortzeko eta gako batzuk eskaintzeko. Jakin nahi da herritarrengana nola iritsi planetak aurrean dituen ingurumen-erronken kontakizunarekin, nola azaldu noraino eragiten eta eragingo diguten, eta bai administrazioek eta bai herritarrok zer egin dezakegun eta zer egin behar dugun.

Erronka handi horiek Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Ingurumen Esparru Programan – Jaurlaritzaren arlo horretako ekintza gidatzen duen dokumentuan– jaso zituen gai saihetsezinak dira, eta bost multzoren inguruan egituratzen dira: biodibertsitatea, osasuna/ingurumena binomioa, ekonomia zirkularra, ingurumen-hezkuntza eta klima-krisia.

2019an abian jarri den Ingurumen Komunikazioko Eskolan horren inguruan sakondu nahi dugu, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen programaren barruan. Eskola hau iraupen-bokazioarekin sortu da, eta lehen edizio honetan klima-krisiaren arazora hurbiltzen saiatu da.

Berotze globalari eta klima-ekintzari buruzko gertakari, zifra eta narratibari heldu nahi izan diegu, betiere komunikazioaren ikuspegitik, hainbat esperientzia erakutsiz eta herritarren jokabideetan eragina izateko gaitasuna dutenei aukera emanaz, administrazioetik, ingurumen-hezkuntzatik, esparru akademikotik, erakunde zibiletatik eta komunikabideetatik bertatik.

Era askotako ikuspegiak aukera hori klima-krisia ezagutarazteko formatu berriei buruzko aurkezpenarekin eta eztabaidarekin osatu da, ziur baikaude formula eta euskarri berriak bilatu behar direla eragile guztiak kausa honetan parte hartzeko.

Eztabaidagune nagusien artean nabarmendu zen administrazio publikoak norabide aldebikora igaro behar duela norabide aldebakarreko komunikaziotik: gobernuak ezin dute jarraitu pentsatzen norabide aldebakarreko komunikazioaren bidez mezu hori iritsi egingo dela. Horrekin batera, herritarrak zuzeneko komunikazioa eskatzen ari dira kudeatzaile publikoekin: gero eta gehiago nahi dute parte hartu beste moduren batean arlo publikoaren kudeaketan.

Aldi berean, ingurumen-komunikaziotik ulertu behar dugu komunikazioaren paradigma – oro har– aldatu egin dela. Igorlea-mezua-hartzailea tradizioaletik, kanal desberdinetako hainbat igorletara pasatu gara, askotan kodea partekatzen ez den mezuekin.

Komunikazioa eraginkorra eta efektiboa izan dadin dagoen oztopo nagusietako bat, hain zuzen, informazio-ekosistema bera da, garrantzi gehiago ematen zaiolako osperei egia baino. Kanal ugariak eta milioika aldibereko igorleek zaildu egiten dute informazioa alderatzea, eta informazio faltsua argitaratzen dutenen zigorgabetasuna errazten dute. Nork dauka denbora nahikoa albiste batean sakontzeko eta datuen egiazkotasuna berresteko, berehala albiste berriak ateratzen badira informazio faltsua emanez?

Ingurumen Komunikazioko Eskola honen lehen edizioak, bestalde, balio izan du ingurumen-gaien berri ematea erabakitzean, herri-administrazio batek lortu nahi dituen helburuei buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko; komunikabideetan agertzen ari den klima-krisiari buruzko informazioa agertu behar duena ote den, nahikoa ote den eta ondo bideratuta ote dagoen; komunikabideetako profesionalak horren berri emateko ondo prestatuta ote dauden; eta nor den klima-krisiaren kontakizunaren buru (komunikabideak, administrazio publikoetako ingurumen-sailak, talde ekologistak, zientzialariak?).

Azkenik, arazo horri buruzko informazioaren eta komunikazioaren testuinguruan kontuan hartu beharreko aldagai batzuk azaldu ziren, besteak beste:

- Klima-lidergoaren garrantzia kontakizunean.
- Lurreratzeko eta herritarrei hizkera zientifikoa ulergarri egiteko beharra.
- IPCCko (Intergovernmental Panel on Climate Change ingelesez) adituen paneletan komunikazio-espezialistak sartzeko beharra. IPCC erakundea NBEren Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea da, eta bere misioa da munduari klima-aldaketari buruzko iritzi objektibo eta zientifiko bat helaraztea.
- Komunikabide handien (eta, beraz, herritarren) hizkeran jada gertatzen ari diren aldaketak.
- Klima-krisiari buruzko narratiba berriak: umorea, ilustrazioa, komunikabide eta kanal espezializatuak, hezkuntza-sentsibilizazioa binomioa, herritarrak mobilizatzeko ekimenak...
- Klima-anbizioa: norantz goaz?